

113/2016 FORU AGINDUA, ekainaren 7koa, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak emana, Nafarroako zezen ikuskizunen Erregelamendua onesten duen foru dekreturako proiektua prestatzeko prozedura abiatzen duena.

Ekainaren 29ko 249/1992 Foru Dekretuaren bidez, Zezen ikuskizunen Erregelamendua onetsi zen. Zezen ikuskizunen egungo araubide juridikoa aplikatu den urteetan lortutako eskarmentuaren arabera, komenigarria da gaurko errealitatera gehiago hurbiltzen den araudia ematea ikuskizun horiei. Araudi horrek bat etorri behar du Administrazioaren eraginkortasunaren, efizientziaren, sinplifikazioaren eta prozedura ekonomiaren printzipioekin; gainera, funtsezkoa da, ikuskizun hauek arrisku berezikoak izanik, araudi horrek babestea pertsonen bizitzarako, osotasun fisikorako eta segurtasunerako eskubide oinarritzakoak, kontsumitzaileak, erabiltzaileak eta ukituriko hirugarrenak, baita animalien ongizatea ere.

Bestalde, arlo honetan arauak sakabanatuta daudenez gero, testu bakar bat idatzi beharra dago, zezen ikuskizunei buruzko araudia bategiteko, eguneratzeko eta koherente bihurtzeko, eta arauetako eta merkatuko egungo eskakizunen arabera planteatzen diren galderei erantzuteko.

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 59. artikulua adierazten duenez, gaiaren arabera eskumena duen kontseilariak hasiko du erregelamendu-xedapenen prestaketa eta hark izendatuko du prozeduraren ardura izanen duen organoa.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41. artikuluko 1. idatz-zatiko e) letran ematen zaizkidan ahalmenak erabiliz,

AGINDU DUT

1.-Nafarroako zezen ikuskizunen erregelamendua onesten

duen foru dekreturako proiektua prestatzeko prozedura abiatzea.

2.-Barne Zuzendaritza Nagusia izanen da prozeduraren eta proiektu prestaketaren ardura duen organoa.

3.-Indarrik gabe uztea 604/2011 Foru Agindua, abuztuaren 10ekoa, Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariak emana, Nafarroako zezen ikuskizunak arautzen dituen erregelamendu-xedapena prestatzeko prozedura abiatzen duena.

4.-Foru agindu hau igortzea Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko idazkari tekniko nagusiari, Barne Zuzendaritza Nagusira, Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzura, Araubide Juridikoaren eta Langileriaren Zerbitzura eta Jokoaren eta Ikuskizun Publikoen Atalera, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2016ko ekainaren 7an.

LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA
JUSTIZIAKO KONTSEILARIA,
María José Beaumont Aristu